

EUSKARA JENDEA



Erromako Inperioan

C MAILA ikaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izen dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.


Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800–1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita ()

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

ERROMAKO INPERIOAN

Erromako Inperioak, Europan izan den inperiorik handienak, euskaldunon eremura ere zabaldu zituen hegala. Baina nola sartu ziren erromatarrak gure arbasoen lurretan? Noraino iritsi ziren? Nolako eragina izan zuten bertokoen bizimoduan? Eta geure hizkuntzan? “Euskara jendea” sortako bigarren dokumentalak galdera horien eta beste batzuen erantzunetara hurbildu nahi gaitu.

AURKIBIDEA

Dokumentala ikusi aurretik

KOKA GAITEZEN

1. Hasierako paragrafoa osatu: Erroman gara 4. orr.
2. Zer dakizu Erromako Inperioari buruz? 5. orr.
3. Bertoko herriak erromatarren garaian 6. orr.

Helburua: Aurreko ariketa guztien helburua dokumetalaren ikusketa erraztea da.

INTERESEKO KONTUAK BILATU

4. Dokumentala ikusi aurretik, ikusketa prestatzen 7. orr.

Helburua: Dokumentalaren ikusketa prestatu, interesatzen zaizkigun puntuak identifikatu.

Dokumentalaren ikusketa

IKUSKETA AKTIBOA EGINGO DUGU

5. Oharrak jasotzeko orria prestatu 9. orr.
6. Ikusi bitartean oharrak jaso 10. orr.

Helburua: Dokumentalak eskaintzen duen informazioa modu antolatuan jaso.

Dokumentala ikusi ondoren

NOLA KONTATUKO ZENUKE?

7. Gaiari buruzko azalpenak prestatzen 11. orr.

Helburua: Lagun bati ikusitakoa azaltzeko aitzakiz, dokumentalari buruzko hausnarkerta egin.

GRAMATIKARI BEGIRADATXOA

8. Badakit, ez dakit... 13. orr.
9. Euskara dezagun 15. orr.

GRAMATIKA HOBETZEKO PLANA

10. Zer ikasi behar dut? 16. orr.

Helburua: Aurreko hiru ariketen helburuak norbere hutsune gramatikalak identifikatzeko teknika bat ikastea, eta hutsune horiek gainditzeko plana martxan jartzea da.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa 17. orr.

Erantzunak 19. orr.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK: KOKA GAITEZEN

Dokumentalak eskainiko diguna errazago eta erosoago jaso ahal izateko, oso lagungarria da ikusi aurretik gaia kokatzea: Zer dakigu garai haiei buruz? Zer entzun dugu? Zer irudikatzen dugu? Bada, horretaz guztiaz apur bat pentsatzeko ariketa batzuk dituzu lehenengo orri hauetan.

1. HASIERAKO PARAGRAFOA OSATU: ERROMAN GARA

1.1 Testuaren azpian dituzu, erdaraz, paragrafoan falta diren hitzak. Horiek behar bezala itzuli ondoren, "Erromako Inperioan" dokumentala zabalduko duen paragrafoa irakurri ahal izango duzu.

- DE LA TUMBA / DE LA TOMBE
- TESTIMONIO / TÉMOIGNAGE
- EL ROTULO / LE COMMENTAIRE
- SOBRE LA PISTA / SUR LA TRACE
- PADRÓN RECENSEMENT / MENCIÓN RÉFÉRENCE.

"ERROMAN GARA, LEGENDAREN ARABERA ROMULOK FUNDATUTAKO HIRI ETERNOAN. BERTAN AURKITU ZUTEN ASPALDI CAIUS MOCCONIUS VERUS PRETOREAREN [REDACTED] INSKRIPZIOA. [REDACTED] HAREN CURSUS HONORUM EDO KARRERA POLITIKOA AZALTZEN DU. HARI ESKER DAKIGU MOCCONIUSEK, KRISTO ONDOKO I. EDO II. MENDEAN BASKOIEN ETA BARDULIARREN HOGEITA LAU HIRIREN [REDACTED] OSATU ZUELA. BALIO IZUGARRIZKO [REDACTED], ZALANTZARIK GABE. ZAHARRENETARIKO BAT IZATEAZ GAIN, GURE LURRALDEKO HERRIEN [REDACTED] JARTZEN GAITU. EZ DA HORI, JAKINA, ERROMATARREK UTZITAKO TESTIGANTZA BAKARRA. ESTRABON, PLINIO, TITO LIVIO EDO JULIO ZESARREK ERE HITZ EGIN ZIGUTEN HERRIEI BURUZ. BAINA, ZORITXARREZ, ORDUKO HISTORIALARIEK EZ ZUTEN HERRI HAIETAKO LAGUNAK MINTZO ZIREN HIZKUNTZEI BURUZKO [REDACTED] JASO."



2. ZER DAKIZU ERROMAKO INPERIOARI BURUZ?

2.1 Hemen dituzu Erromako Inperioari buruzko datu orokor batzuk. Irakur itzazu arretaz, eta saia zaituz datuen artean ezkutatu ditugun bost tranpatxoak aurkitzen.



ERROMAKO INPERIOA (KRISTO ONDOKO 117AN):

Zabalera: 6.500.000 km²

Hiriburua: Erroma

Populazioa: (Kristo ondoko 117an): 88.000.000

Erljioak: Erromako erlijioa (k. a. 27 – k. o. 337) Sijismoa (337 - 476).

Hizkuntza nagusia: latina

Beste hizkuntzak: greziera, bereberrera, galera, katalanera, feniziera, aramearrera, euskara...

Monetak: denarioa, sesterzioa, erubloa...



- AURREKO DATUEN ARTEAN EZKUTATUTAKO TRANPATXOAK HAUEK DIRA:

1. Adibidea: Garai haietan ez zegoen izeneko lekurik.

2.

3.

4.

5.

3. BERTOKO HERRIAK ERROMATARREN GARAIAN


3.1 Ondoko zerrenda honetan Inperioa zabaltzean erromatarrek aurkitu zituzten herri batzuk daude, horietako bost oraingo Euskal Herrian. Badakizu zein diren bost herri horiek? Jarri ezazu "x" bana herri horien ondoan.

LUSITANIARRAK	<input type="checkbox"/>	BARDULIARRAK	<input type="checkbox"/>
BASKOIAK	<input type="checkbox"/>	KAPADOZIARRAK	<input type="checkbox"/>
KARISTIARRAK	<input type="checkbox"/>	AKITANIARRAK	<input type="checkbox"/>
AUTRIGOIAK	<input type="checkbox"/>		

3.2 Eta sobera geratu diren herri biak non kokatuko zenituzke? Aukera itzazu beheko lekuen artean:

1.-AK BIZI ZIREN.
2.-AK BIZI ZIREN.

- A. GAURKO PORTUGALEN ETA EXTREMADURAN
- B. GAURKO TURKIAREN EKIALDEAN
- C. GAURKO ITALIAREN IPARRALDEAN
- D. AFRIKAKO IPAR-MENDEBALDEAN
- E. GAURKO IRLANDAN
- F. GAUR SIZILIA DEITZEN DUGUN IRLAN

3.3  Ariketa guztiak egin ondoren, elkartu ikaskide batzuekin, eta alderatu erantzunak.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK: INTERESEKO KONTUAK BILATU

“Erromako Inperioan” dokumentalean erromatarrak gure lurrian izan ziren garaiak mintzo zaigu: nola sartu ziren, zer egin zuten, nolako harremana izan zuten bertoko biztanleekin, eta nolako eragina izan zuten haien bizimoduan eta hizkuntzan. Hau guztia gogoan, zer jakin nahi zenuke garai haiei buruz?

4. DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK JAKIN NAHI DUGUNA ARGITU

Dokumentala ikusi aurretik interesatzen zaiguna argi izatea oso lagungarria izango da gure arreta behar bezala bideratzeko. Honela egingo dugu:

4.1 Irakur itzazu ondoko galderak, eta aukera itzazu interesgarri deritzezun bostak.

F R O M A T A R R E N F T O R R E R A

1. Noiz sartu ziren erromatarrak Euskal Herrian?
2. Nondik etorri ziren?
3. Nolako harrera egin zieten geure arbasoek? Onartu zituzten? Borrokan jo eta ke ibili ziren?
4. Oraingo Euskal Herri osoan sartu ziren? Lekuren bat geratu zen erromatartu gabe?
5. Herri homogeneo bakarra aurkitu zuten hemen, ala herri desberdin batzuk?
6. Nondik dator euskaldunak isolaturik eta konkistatu gabe zeuden ideia?
7. Bertoko biztanleek erromatarren hiritartasuna lor zezaketen? Nola?

ERROMATARREN EKARPENAK

8. Galtzada erromatar asko dago gurean: nondik nora doaz? Zertarako eraiki zituzten?
9. Hiri asko ere eraiki zituzten erromatarrek. Zeintzuk? Zein dira gaur egun hiri horiek?
10. Pompaelo izan zen hiririk garrantzitsuena? Zein da? Zergatik du izen hori?
11. Calagurris ere aipatzen da dokumentalean? Zein da hiri hori? Zein bitxikeria kontatzen da?
12. Oiasso ere hiri garrantzitsua zen? Non zegoen? Zergatik zen garrantzitsua?
13. Andoain, Laudio eta Gendulain herrien izenak latinetik datoz. Zer esan nahi dute?
14. Meategi garrantzitsuak ustiatu zituzten erromatarrek? Non? Zer ateratzen zuten?

HIZKUNTZAK ERROMATARREN GARAIAN

15. Noraino zabaltzen zen euskara erromatarrek etorri zirenean?
16. Euskara zen hemengo hizkuntza bakarra orduan?
17. Non aurkitu dira euskararen aipamenak? IdazkUNETAN? Hilobietan?
18. Non agertu dira orduko euskararen lekukotasun argienak: Gipuzkoan, Asturiasen ala Sorian?
19. Zein izan ziren bertako hizkuntza ofizialak erromatarren garaian?
20. Bertakoekin komunikatzeko zein hizkuntza erabiltzen zuten erromatarrek?
21. Latinaren eragina jaso zuen euskarak? Zein euskal hitz arrunt datoz latinetik?
22. Euskararen erabilera berdin mantendu zen erromatarren garaian?

DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN: IKUSKETA AKTIBOA EGINGO DUGU

5. OHARRAK JASOTZEKO ORRIA PRESTATU

5.1 Idatz itzazu orri honetan aukeratu dituzun bost galderak, eta beste galderaren bat bururatzuz gero, idatzi 6. puntuari buruz usteren bat baduzu (entzun duzun zerbait, imajinatzen duzuna...), jaso zeure koadernoan.

1. GALDERA:

.....

2. GALDERA:

.....

3. GALDERA:

.....

4. GALDERA:


.....

5. GALDERA:

.....

6. BESTE GALDERAREN BAT?

.....

5.2  Ikaskide batzuekin elkartu, aukeratu eta asmatu dituzuen galderak alderatu, eta nahi izanez gero osa ezazu zeurea interesgarri deritzezun kideen galderekin.


Galderei buruz usteak izanez gero (entzun edo irakurri duguna, imajinatzen duguna...), elkarrekin komentatuko ditugu.

6. IKUSI BITARTEAN, OHARRAK JASO.

A. Galdetegia prest duzula, orria eta boligrafoa eskura jarri, eta presta zaitetz dokumentala ikusteko.

B. Zerbait interesgarri ikusi edo entzuten duzunean (zeure galdera baten erantzuna, bestelako datu bitxiren bat...), jaso oharra orrian.

Ez galdu denborarik datuak literal jasotzeko eta ez zoratu gramatikarekin; datua gogoraraziko dizun hitz bakarra edo esaldi laburra jasotzea nahikoa da, eta dokumentalaren haria ez galtzen lagunduko dizu.

C.  **D**okumentala amaitu ondoren, alderatu zeure oharrak ikaskideekin, eta osa itzazu.



DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN: NOLA KONTATUKO ZENUKE?

“Erromako Inperioan” dokumentalean ikusitakoaz mintzatu beharko bazenu, zer esango zenuke? Nori hitz egingo zenioke gaiari buruz? Nola prestatuko zenuke zeure diskurtsoa? Orri honetan duzu horretan laguntzeko proposamen bat.

7. Gaiari buruzko azalpenak prestatzen

a. Norekin hitz egingo zenuke dokumentalean ikusitakoari buruz? Nori interesa dakiok hori guztia? Lagun hori gogoan izateak azalpena prestatzen lagunduko dizunez, jaso ezazu izena hemen:

.....

.....

.....

b. Prestatu dokumentalaren aurkezpen laburra: non ikusi duzun, noiz, zein izan den gaia...

.....

.....

.....

.....

c. Dokumentalean jasotako hiru ideia nagusiak gogoratu.

1.
2.
3.

d. Harritu zaituen zerbait gogoratu (ikusi aurretik zerbaiti buruzko ideia jakin bat zeneukan, eta dokumentalari esker bestela dela jakin duzu).

.....

.....

.....

.....


e. Ikusi duzun bitxikeriaren bat, dokumentalean agertu den kontu deigarriren bat gogoratu.

.....

.....

.....

.....

f.  Elkartu ikaskide batzuekin, prestatu dituzuen aurkezpenak alderatu, eta saia zaitez zure aurkezpena osatzen edo hobetzen (aurkezpenean beste datu interesgarriren bat gehitu, puntu garrantzitsuren bat aldatu...).

g. Birpasatu prestatu duzun aurkezpena, eta ahal duzunean azaldu aukeratu duzun lagunari dokumentalean ikusitakoa, eta anima ezazu bera ere dokumentala ikusten.

DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN: GRAMATIKARI BEGIRADATXOA

“Erromako Inperioan” dokumentalari esker erromatarrak gurean izan ziren garaia apur bat hobeto ezagutu ahal izan dugu. Baina horrelako ikus-entzunezkoak hizkuntza bera ere ikasteko baliabide apartak izan daitezke, eta oraingoa gramatikari begiradatxoa emateko erabiliko dugu.

8. BADAKIT, EZ DAKIT...

A. Hemen dituzu, gazteleraz, dokumentalean esandako hainbat esaldi. Eman azaleko begirada esaldi guztiei, eta zail, bitxi edo arrotz deritzozun hitz edo egituraren bat aurkituz gero, azpimarra ezazu.

1. No sabemos apenas nada sobre el euskara de la antigüedad, y siempre por medio de las escasas palabras encontradas en los altares y estelas funerarias romanas.

Nous connaissons très peu la langue basque antique; ses seuls témoignages sont quelques mots recueillis dans les autels et stèles funèbres romains.

2. Según el mito, los calagurritanos prefirieron practicar la antropofagia a vivir bajo el dominio de Pompeyo. *Le mythe veut que les habitants de Calagurri préférèrent pratiquer l'anthropophagie plutôt que de vivre sous la domination de Pompéi.*

3. Elena Torregarai, profesora de Historia de la Antigüedad de la Universidad del País Vasco es de esa opinión.

Elena Torregarai, professeur d'histoire antique à l'université du Pays Basque partage cette opinion.

4. Después de someter a un pueblo, los romanos organizaban el territorio. Creaban ciudades para extender su modelo.

Après avoir conquis un peuple, les romains organisaient leur territoire et créaient des ville.

5. La red de ciudades la componían, entre otras, Andelos, Veleia, Oiasso, Cascante, Arakil o Iturissa.

Les villes comprises dans ce réseau étaient entre autres Andelos, Veleia, Oiasso, Cascante, Arakil ou Iturissa.

6. Si tenemos todo eso en cuenta, parece que Santander, Bordele y Oiasso formaban un triángulo, y canalizaban un tipo de navegación.

Par conséquent, il semblerait que Santander, Bordeaux et Oiasso formaient un réseau de navigation triangulaire.

7. Pero los romanos no solo miraban los puertos de mar y las llanuras del Ebro y de Aquitania, sino también la zona montañosa.

Mais les romains ne s'intéressaient pas seulement aux ports maritimes et aux plaines de l'Ebro et d'Aquitaine ; la zone montagneuse faisait également partie de leurs objectifs.

8. Explotaron ininidad de minas y canteras, pero la más importante de todas fue la zona minera de Aia.

Ils exploitèrent un grand nombre de mines et de carrières, mais la plus importante de toutes fut la zone minière d'Aia.

9. Por el contrario, los cronistas de la Antigüedad no se preocuparon demasiado de recoger las lenguas que se hablaban en los territorios conquistados.

Par contre, les chroniqueurs de l'Antiquité ne se préoccupèrent pas de recueillir les langues qui étaient parlées dans les territoires conquis.

10. Cuando vinieron los romanos, nos contaron muy pocas cosas sobre las lenguas. Además, no tenía por qué darse el binomio un territorio, una lengua.

Lorsque les romains vinrent, ils n'apportèrent que très peu d'information sur les langues indigènes. Pourtant, dans chaque territoire on devait parler plus d'une langue.

11. Cuanto más al este, los testimonios son más claros; cuanto más al oeste, en cambio, más escasos y confusos.

Plus on va vers l'est et plus les témoignages sont clairs; par contre, plus on va vers l'ouest, plus ils sont rares et confus.

12. ¿Pero cómo conseguían la ciudadanía romana? Para los pueblos conquistados entrar en el ejército era una de las pocas salidas.

Comment obtenaient-ils la citoyenneté romaine? Pour les peuples conquis, entrer dans l'armée en était le seul moyen.

13. Para entonces, nuestro territorio estaba romanizado: la idea de que los vascos vivieron aislados y sin conquistar es falsa. Es un mito, inventado, en gran medida, por los mismos romanos.

Pour lors, notre territoire était romanisé: l'hypothèse selon laquelle les basques vivèrent reclus et qu'ils ne furent pas conquis est fautive. C'est un mythe, inventé en grande partie par les romains.

14. La romanización cultural no trajo consigo la romanización del idioma. Los pueblos del euskara no fueron enteramente latinizados.

La romanisation culturelle n'entraîne pas la romanisation de la langue. Les peuples de langue basque ne furent pas entièrement latinisés.


B. Eta aurreko esaldiei lehenengo begirada arina eman ondoren, ondoko zein esaldi aukeratuko zenuke?

- Esaldi horiek erraz euskara ditzaket akatsik egin gabe
- Esaldi horiek, akats bakanen bat salbu, arazo handirik gabe euskara ditzaket
- Esaldi horiek euskara ditzaket, baina lau edo bostekin arazoak izango ditut
- Esaldi horiek itzultzea zaila izango da, eta egitura eta hitz nahikorekin ez dut asmatuko ..

9. EUSKARA DEZAGUN

A. Orain, eskaintzen dizugun laguntzarekin, saia zaitez aurreko orriko esaldiak euskaratzen.

1. Antzinaroko euskaraz, eta beti ere erromatarren aldareetan eta hilarrietan agertutako
2. Mitoaren arabera,
3. Elena Torregarai Euskal Herriko Unibertsitateko Antzinaroaren Historiako irakaslea.
4. Herri bat menderatu eta gero, erromatarrek lurraldea antolatzen zuten.
5. Hiri-sarea osatzen zuten,, Andelos, Veleia, Oiasso, Kaskante, Arakil edo Iturissak.
6., ematen du Santander, Bordele eta Oiassok triangulu bat osatzen zutela, eta nabigazio mota bat bideratzen zutela.
7. Baina, mendialdeari ere begiratu zioten erromatarrek.
8. Hamaika meategi eta harrobi ustiatu zituzten, Aiako meatzaritza-gunea izan zen.
9. Antzinaroko kronistak, aldiz,
10. Erromatarrek etorri zirenean, oso gauza gutxi kontatu ziguten hizkuntzei buruz. Gainera,
11. lekukoak garbiagoak dira;, urriagoak eta ilunagoak.
12. Baina nola lortzen zuten Erromako hiritartasuna? Konkistatutako herrientzat
13. Ordurako, gure lurraldea erromatarturik zegoen: guztiz faltsua da. Mitoa da, hein handi batean,
14. Erromatartze kulturalak Euskararen herriak ez ziren osoki latinizatu.

B.  **K**aieraren amaierako erantzunak ikusi aurretik, elkar zaitez ikaskide batekin, itzulpenak alderatu, eta elkarren laguntzaz egin dituzuen lanak osatu, eta elkarren laguntzaz zaia zaitezte zalantzak argitzen.

Dokumentala ikusi ondoren: Gramatika hobetzeko plana

Ahoz edo idatziz jasotako eredu egokiek, gure gramatikaren ezagutza aztertzeke, eta hobetu beharko genituzkeen kontuak identifkatzeko aukera ederra eskainiko digute. Oraingoan, ikusi dugun dokumentala eta aurreko ariketa erabiliko ditugu horretarako.

10. Zer ikasi behar dut?

a. Alderatu zure itzulpenak eta 12. eta 13. orrietako erantzunak, arreta berezia jarri erantzunetan letra gorritz idatzitako egiturei, eta ariketa baloratu. Nola egin dituzu itzulpenak?

- Zenbat esaldi itzuli dituzu zuzen?
- Erraza egin zaizu itzultzea? Buruz egin duzu ala hiztegia erabiliz? Laguntza behar izan duzu?

.....

.....

.....

b. Txarto itzuli dituzun esaldien artean, aukera itzazu interesgarri deritzezun hiru egitura, ondo egiten ikasi nahi zenituzkeenak. Adibidez: *“Ezer gutxi dakigu Antzinaroko euskaraz”*.

c. Idatzi ikasi nahi dituzun hiru egitura taulako lehenengo zutabean.

d. Bigarren zutabean adibideak jaso. Egiturak errazago gogoratzeko, esaldi esanguratsuak idatzi: ekarri burura lagun edo ezagunen bat, eta, adibidean bezala, idatzi pertsona horri esango zeniokeen zerbaiz. Egitura bakoitzarekin adibide pare bat idatzi.

	EGITURA	ADIBIDEA: ZER ESAN?
0.	<i>Ezer gutxi</i>	<i>Ezer gutxi kontatzen digu honek bere bizitzari buruz. (Irakasleari).</i>
1.
2.
3.

(Oharra: taula honetan esaldiak idazteko lekurik ez baduzu, kopia ezazu taula beste orri batean)

e. Noizean behin (ahal izanez gero egunero) birpasatu taula, eta adibide berriak idatzi.

f. Egiturak behar bezala erabiltzea lortzen dituzunean, taula berria egin beste hiru edo lau egiturekin.

ONDORIOAK ETA AUTO-EBALUAZIOA

Edozein lan egin ondoren, oso garrantzitsua da egindakoa ebaluatzea eta ondorioak ateratzea. Horretarako, orri honetan egin dugun lanari erreparatuko diogu, ikusi dugun dokumentala baloratuko dugu, eta egindako ariketarekin ikasi duguna aztertuko dugu.

DOKUMENTALARI BURUZKO IRITZIA

(1, gutxi; 5, asko)

1. Dokumentala zure gustukoa izan da? 1 2 3 4 5

- Zergatik?

.....

.....

2. Gaia interesgarria iruditu zaizu? 1 2 3 4 5

- Dokumentalak eskaini dizkizun hiru ideia interesgarri aipatu:

a.


.....

b.

.....

c.

.....



ARIKETAN IKASITAKOAREN BALORAZIOA

3. Dokumentalen ikusketa prestatzeko teknika.

- Lagungarria izan da teknika hau dokumentala hobeto ikusteko? 1 2 3 4 5

- Zergatik?

.....

.....

4. Gaiari buruzko azalpenak prestatzen.

- Gaiaz hausnartzeko lagungarria iruditu zaizu teknika hau? 1 2 3 4 5

- Zergatik?

.....

.....

5. Gramatikari begiradtxoa.

- Hutsune gramatikalak identifikatzeko teknika baliagarria iruditu zaizu? 1 2 3 4 5

- Nolako hutsuneak identifikatu eta aukeratu dituzu hobetzeko?

.....

.....

- (5-6 egun igaro ondoren erantzuteko) Hutsuneak gainditzeko planari jarraitu diozu? Bai / Ez

- Hobekuntza nabaritu duzu? Zertan?

.....

.....

ERANTZUNAK

1. ariketa: Hasierako paragrafoa osatu: Erroman gara

“Erroman gara, legendaren arabera Romulok fundatutako hiri eternoan. Berton aurkitu zuten aspaldi Caius Mocconius Verus pretorearen **hilobiko** inskripzioa. **Idazkunak** haren cursus honorum edo karrera politikoa azaltzen du. Hari esker dakigu Mocconiusek, Kristo ondoko I. edo II. mendean baskoien eta barduliarren hogeita lau hiriren **errola** osatu zuela. Balio izugarritzko **lekukotza** zalantzarik gabe. Zaharrenetariko bat izateaz gain, gure lurraldeko herrien **arrestoan** jartzen gaitu. Ez da hori, jakina, erromatarrek utzitako testigantza bakarra. Estrabon, Plinio, Tito Livio edo Julio Zesarrek ere hitz egin ziguten herriei buruz. Baina, zoritxarrez, orduko historialariek ez zuten herri haietako lagunak mintzo ziren hizkuntzei buruzko **aipurik** jaso.”

2. ariketa: Zer dakizu Erromako Inperioari buruz?

1. akatsa: Data. Inperioa Kristo **aurreko** (ez ondoko) 27an sortu zen, eta Kristo ondoko 476a arte iraun zuen.
2. akatsa: Mapa. **Bilbonia** izeneko lekurik ez zegoen, jakina.
3. akatsa: Hizkuntzak. **Katalanera** latinetik dator; nekez izango zen garai haietan, beraz.
4. akatsa: Erlijioak. **Sijismoa** Indian sortutako erlijioa da; 337 - 476 bitartean kristautasuna izan zen erromako erlijio ofiziala.
5. akatsa: Moneta. **Errubloa** Errusiako moneta da.

3. ariketa: Bertoko herriak erromatarren garaian

Erromatarrek gurean aurkitu zituzten herriak hauek ziren: baskoiak, barduliarak, karistiarak, autrigoiak eta akitaniarrak. Lusitaniarrak, gaurko Portugalen eta Extremadura aldean bizi ziren, eta kapadoziarrak gaurko Turkiaren ekialdean.

4. ariketa: Dokumentala ikusi aurretik jakin nahi duguna.

Galderen erantzunak

1. Gure lurraldera, K. a. II. mendean heldu omen ziren erromatarak.
2. Bi aldetatik azaldu ziren: Ebro ibaian gora eta Akitaniako lur zabaletan barrena.
3. Herrien eta erromatarren arteko harremanak aski baketsuak izan zirela dirudi. Tarteka, baina, herriak Erromako barne-borroketan murgildu ziren.
4. Neurri handiagoan ala txikiagoan, gaurko Euskal Herri osora zabaldu ziren erromatarak.
5. Erromatarrek hainbat herriekin egin zuten topo. Karistiarak Bizkaian eta Araban bizi ziren; autrigoiak Bizkaiko mendebaldean; barduliarren lurraldea gaur egungo Gipuzkoara eta Arabako zati batera zabaldua zen; baskoiak, berriz, Nafarroan nagusiki, bai eta Errioxako eta Aragoiko toki batzuetan ere. Azkenik, mendien ipar aldean, akitaniarrak, Garona ibairaino gutxienez.
6. Euskaldunak isolaturik eta konkistatu gabeak bizi izan zireneko ideia guztiz faltsua da. Mitoa da. Hein handi batean, erromatarrek eurek asmatua. Inperioaren menpeko eremuan identitate bakarra zegoen: erromatarra. Erromatarrek, hala ere, errealitate poetiko bat ere osatu zuten, eta hartan identitateak ezberdinak ziren.
7. Hiritartasuna lortzeko aukera batzuk zeuden: armadan 25 urtez parte hartzea, diru trukez administrazioan sartzea eta udal-kargu bat eskuratu edo hiriaren alde zer edo zer egitea.
8. Galtzadak ezinbestekoak ziren ekonomia garatzeko eta lurraldea kontrolatzeko. Gurean, galtzada nagusi

bik disekzionatzen zuten lurraldea. Batetik, Asturica Burdigalam, Astorgatik Bordelerako bidea. Bestetik, Tarraco eta Oiasso gune estrategikoak uztartzen zituen, Tarragona eta Irun. Via Maris deituriko itsas-bideak, bestalde, Flaviobriga eta Lapurdum lotzen zituen, hau da, Castro eta Baiona, Bermeo, Lekeitio, Zarautz, Oiasso eta Getaria biak zeharkatuz.

9. Herri bat menderatu ostean, erromatarrek lurraldea antolatzen zuten. Hiriak sortzen zituzten beren eredia zabaltzeko. Gurean, besteak beste, honako hauek sortu zituzten: Andelos (gaurko Mendigorria udalerrian, Iruñetik gertu), Veleia (gaurko Arabako Iruña Oka udalerrian), Oiasso (Gaurko Irunen), Kaskante (gaurko izen bereko herrian, Nafarroako hegoaldean), Arakil (gaurko Uharte Arakil udalerrian), Iturissa (Pirinioen magalean, Auritz ondoan), eta guztien gainetik, Pompaelo (gaurko Iruña).

10. Pompaelo gaurko Iruña da. Ponpeio erromatarrek bere izena erabili zuen hiria fundatzean, Inperioko mendebaldeko mugak finkatzeko eta bere burua konkistatzaile aldarrikatzeko. Horregatik, erromatarrentzat hiri sinbolikoa zen Pompaelo.

11. Calagurris gaurko Calahorra da. Dokumentalean ondoko hau kontatzen da: “Ponpeioren legioek indarrez hartu zuten Sertorioren agindupean zegoen Calagurris hiri baskoia. Mitoaren arabera, kalagurritarrek nahiago izan zuten antropofagia egin Ponpeioren mendean bizi baino.”

12. Oiasso hiri erromatarra gaurko Irunen zegoen. Oiasso bidegurutze estrategikoa zen, Tarracotik Pompaelon barrena zetorren bideburua eta, Bidasoa gainditzeko zeukan zurezko zubiaren bidez, Akitaniarako atea. Haren inguruan zilarra, kobrea eta burdina ekoizten zen. Azkenik, itsasoari irekia, portu garrantzitsua ere bazen Bordele eta Santander artean.

13. Armada utzi eta gero, legionarioak fundus deituriko etxaldeetan kokatu ohi ziren. Etxeok, sarri, nagusiaren izenaz batera, –anus atzizkia eramaten zuten, norena zen adierazteko. Adibidez, Belaskoren fundus-a Belascoanus zen latinez, Belaskorena alegia. Askotan, –anus atzizkia –ain, –ano edo –in bihurtzen zen euskararen galbahetik pasatu ondoren. Gendulain, esaterako, Centulianus izenetik omen dator; Andoain, Andoanusetik; eta Audio, Claudianusetik. Izenak latinez eratuta daude, baina euskal ahotik pasatu dira.

14. Erromatarrek Hamaika meategi eta harrobi ustiatu zituzten gurean. Besteak beste, burdina lortu zuten Bizkaiko Meatzaldetik, urrea Itsasu herritik eta marmol gorria Ereñotik. Dena den, guztietan inportanteena Aiako meataritza-gunea izan zen. Eta, haren barnean, Arditurriko meategia.

15. Joaquin Gorrotxategi Hizkuntzalaritza Indoeuroparreko katedradunaren ustez “esan daiteke euskararen eremua Garona ibaitik, ekialdean, Pirinioetara zihoala, itsasoraino, eta hortik iparraldera eta hegoaldera. Hau da, lautadan, Gaskuñako lautadan ere badago dokumentatuta, ekialdean batez ere. Mendebaldean, Landetan, ia ez dago ezer ere, baina horrek ez du esan nahi ez zenik egiten, bakarrik dokumentaziorik ez dugula, ez euskararena, ez galierarena, ez beste ezerena. Hegoaldean, berriz, dokumentuak egon badaude. Baskoien lurraldean badaude dokumentuak. Lergan, adibidez. Lerga erdialdean dago, baina baita Zaragoza eta Huesca aldean ere. Eta mendebaldean, Lizarraldean, badaude jainko izenak.”

16. Elena Torregarai, Euskal Herriko Unibertsitateko Antzinaroaren Historiako irakasleak honela dio: “Dakigunez, baskoien lurraldean bazegoen euskara, bazegoen zeltera eta bazegoen iberiera.”

17. Erromatarren idazkUNETAN ezer gutxi aurki daiteke euskarari buruz. Arrasto gehienak harrietan zizelkaturik aurki daitezke aldareetan eta hilerrietan. Hauetan, bereziki, pertsonen eta jainkoen izenak ageri dira.

18. Harrigarria eman balezake ere, lekukotasun garbiagoak agertu dira Soria aldean, Cidacos ibaiaren iturburuan, Bizkaia, Arana eta Gipuzkoa aldean baino.

19. Inperio osoan hizkuntza ofizial bakarra latina zen.

20. “Jada K. o. I. mendean, Valerio Maximok esan zuen Inperioko hizkuntzak latina izan behar zuela. Beraientzat, neurri batean, naturala zen. Beraiek nagusiak zirenez, berez erabili behar zen latina. Bere menpe zeuden guztiek erabili behar zuten latina beraiekin hitz egiteko, bestela ez zuten kasurik egiten.” (Torregarai)

22. “Euskarak latinaren eragina jaso du, ustez hizkuntzaren eremu guztietan. Nabariena lexikoan da, hau da, hitzetan. Hitz asko daude: ‘gaztaina’... hitz asko datoz latinetik. Gramatikan eta ahoskeran handia izan zen eragina seguru aski, baina horretan askoz zailagoa da jakitea zehazki zenbaterainokoa izan zen eta non gertatu zen.” (Gorrotxategi)

9. ariketa: euskara dezagun.

1. Ezer gutxi dakigu Antzinaroko euskaraz, eta beti ere erromatarren aldareetan eta hilarrietan agertutako hitz **bakanen** bitartez.
2. Mitoaren arabera, kalagurritarrek **nahiago** izan zuten antropofagia **egin** Ponpeioren mendean **bizi** baino.
3. **Uste horretakoa da** Elena Torregarai Euskal Herriko Unibertsitateko Antzinaroaren Historiako irakaslea.
4. Herri bat menderatu eta gero, erromatarrek lurraldea antolatzen zuten. Hiriak sortzen zituzten **beren** eredu zabaltzeko.
5. Hiri-sarea osatzen zuten, **besteak beste**, Andelos, Veleia, Oiasso, Kaskante, Arakil edo Iturissak.
6. **Hori guztia** kontuan izaten badugu, ematen du Santander, Bordele eta Oiassok triangelu bat osatzen zutela, eta nabigazio mota bat bideratzen zutela.
7. Baina itsas portuei eta Ebro ibaiko zein Akitaniako lautadei **ez ezik**, mendialdeari ere begiratu zioten erromatarrek.
8. Hamaika meategi eta harrobi ustiatu zituzten, baina **guztietan inportanteena**, Aiako meatzaritza-gunea izan zen.
9. Antzinaroko kronistak, aldiz, ez ziren gehiegi **arduratu** kolonizatutako lurraldeetan mintzatzen ziren hizkuntzak jasotzeaz.
10. Erromatarrak etorri zirenean, oso gauza gutxi kontatu ziguten hizkuntzei buruz. Gainera, lurralde bat hizkuntza bat bikotea ez zen beti **zertan** eman.
11. **Zenbat eta ekialderago**, lekukoak garbiagoak dira; **zenbat eta mendebalderago**, berriz, urriagoak eta ilunagoak.
12. Baina nola lortzen zuten Erromako hiritartasuna? Konkistatutako herrientzat armadan sartzea zen irtenbide **bakarrenetariko** bat.
13. Ordurako, gure lurraldea erromatarturik zegoen: euskaldunak isolaturik eta konkistatu gabeak bizi zireneko ideia guztiz faltsua da. Mitoa da, hein handi batean, **erromatarrek euren** asmatua.
14. Erromatartze kulturalak ez zuen **aldean** hizkuntza erromatartzerik **ekarri**. Euskararen herriak ez ziren osoki latinizatu.